

AURKIBIDEA

AZTERKETA LITERARIOAK

Koldo IZAGIRRE, Telesforo Monzonenzortzi poema inedito	5
Xabier MENDIGUREN ELIZEGI, Langosta baten altzakian	21
Patxi SALABERRI MUÑOA, Lazarragaren artzain-nobela irakurtzen	39
Pako SUDUPE, J.A. Agirre eta T. Monzonenmendeurrena	67
Piarres XARRITON ZABALTZAGARAI, Telesforo Monzon-en mendeburua (1904-2004)	77

SORKUNTZA

Julen LEKUONA, Itsasoan urak handi dire	83
Luis Mari MUJICA, Poeta Europan zehar	115
Pello OTXOTTEKO, Opari bat dakarkizu mundura	135

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Iñaki ZUBELDIA, Miren Agur Meabe emakume-ahots indartsua euskal literaturan	143
--	-----


HERRI LITERATURA

Mikel UGALDE, Santa Ageda koplak Errearterlan	165
--	-----


ADABAKIAK

Iñaki ZUBELDIA, Honela idazten dut liburu bat Bernardo Atxagaren ikastaroa	193
Imanol IRIGOIEN, Roman Irigoien biografia sentimental laburra	201
Janamari Malharini omenaldia Itsasun. 2004eko irailaren 25ean. Roger GAMOY, Piarres AINTZIART, Daniel LANDART, Mikel ERRAMOUSPE, Mattin LARZABAL, Maite IRAZOQUI, Kati ITZAINA,	217

EGAN



Moz. Salvador Canosa fidej.



EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEKO
"BOLETINA"-REN EUSKARAZKO GEHIGARRIA

Idazkaritza: Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte. Gipuzkoako Saila
3.263 Postakutxatila — DONOSTIA

Lazarragaren artzain-nobela irakurtzen

Patxi SALABERRI MUÑOA

Prebentzio guztiekin bada ere, Lazarragaren artzain-nobela zatikatuaren irakurketan eman nahi ditugu ondoko lerrook.

Jakin badakigu lan handia duela oraindik filologiak testua finkatzeko eta bestelako arazoak, baina, edonola ere, egoki iritzi diogu nobelatxo hau (gure literaturako lehenal!) ahalik lasterren ikasle eta irakurle xumeen eskuetan jartzeari.

Egia da kolean –Interneten esan nahi baita– direla dagoeneko Lazarragaren eskuizkribuaren argazkiak eta lehendabiziko transkripzioak, baina ez edonork irakurtzeko eta ulertzeko moduan, izan ere, oinarritzko prestakuntza, gogo biziak eta betaurreko sendoegiak behar baitira haietan murgiltzeko.

Larreakoaren lanaren bulgarizaziorako ahaleginetan, dena den, Patri Urkizu izan da lehen urratsa eman duena, haren *Dianea & Koplak* (Donostia, 2004) argitaratu baitu berriki.

Konparaziotan erori gabe, bistan da xede apalagoa izan behar duela honako artikulua honek, Lazarragaren nobela zatia baino ez baitu ardatz. Eta ardatz eta irakurgai izango du testuaren irakurketa erraztea nahi lukeelako, azken batean.

Hasierako lan guztietan bezala, orain arte kaleratutako bertsiotan (eta gure artikulua honetakoa ere ez da salbuespena izango) ez da falta transkribapen akatsik, irakurketa gaiztorik, interpretazio okerririk edota puntuatze desegokirik. Bestalde, bistan da XVI. mendekoa bide den nobela honetara euskara batuaren esparrutik hurbildu nahi

duenak (eta irakurle gazte gehienak dira esparru horretakoak) lan gehiegi egin behar duela hizkera bera ulertu ahal izateko.

Ezinbestekoa da, beraz, horri aurre egitea eta lehenbailehen, ahal bada. Eta honako honek hori besterik ez du bilatzen.

Oinarri gisa, Iñigo Landaren transkribapena erabili da, hots, sare informatikoko helbide honetan aurkitzen dena: <http://www.armiar-ma.com/klasikoak/lazarraga>. Transkripzioak eta eskuizkribuaren argazkiak aurki daitezke bertan, buruz buru jarrita.

Testuan burutu den esku-sartze bakarra grafema zaharkituak egungo hotsetara, hizkietara eta ortografiara egokitzera mugatu da¹. Horretara eta, egia aitortzeko, gaurko *h* pedagogikoak berrezartzera eta puntuazioa ere doitzera. Ondorioz, nekez aurkitu ahal izango da *y, ç, ch, v, qu, c...* bezalakorik, eta bai, berriz, *ts* (atsegin) eta *tx* (esea ->> etxea) gisakorik.

Irizpide orokorrari jarraituz, bi protagonisten izenak ere ukitu dira: Silvero ->> Silbero, Silvia -> Silbia.

Moldatu dira, halaber, kontsonante multzoak (*nz ->ntz, rz ->rtz...*), baina egokitu gabe mantendu dira gaztelaniazko hitzak (*sin falta, asi que asi*) eta mailegu batzuen zenbait hizki (*ll: dontzella-txo...; r-: remedio, etab.*).

Konbentzioak konbentzio, testu-zatien faltak hiru puntuekin adierazi dira hemen (...) eta berreraikitako hizkiak eta pasarteak, aldiz, parentesien artean: []. Parentesi arteko gidoia hitzaren zati bat falta dela erakusteko jarri da.

Bidaia aprobeztatuz, nobela fragmentario hau (bir)bataiatzeko aukera ere ez dugu galdu nahi izan, eta, horrela, protagonista nagusi guztiak eraman ditugu testuaren burura, morrontza gehiegi eta originaltasun gutxiegi bizkarreratzen baitzitzazkion Lazarragari obratxoan agertzen ez den pertsonaia baten izena garraiatzera kondentatzean. Patuak esan beza nola izendatu nahi duen sorkarial!

Gainerakoan, testua irakurtzea baino ez da izan gure asmoa, irakurtzea eta, ahal izan denetan, interpretatzea ere bai. Eta inork besterik iradoki digun arren, baturatze hutsa egin beharrean, oha-

(1) Honako egokitzapen hau prestatu ondoren ezagutu bagenuen ere, oro har bat gatzoz Urkizuren edizioan erabilitako irizpideekin.

rren sistemaz baliatu gara testuaren lautzea eta leuntzea lortzeko. Ildo horretatik, aditz forma desberdinak eta zailagoa edo iruditu zaigun lexikoa ere eskaini ditugu oharrotan.

Ez gara sartu -hau ez baita edizio kritikoa, ezta hurrik ere- gramatika azalpenetan. Horregatik, gauzaren bat edo beste argitu behar izan denean (*egin* aditz laguntzaile iragankor bezala agertzean, *eskatu* aditzaren laguntzaile iragangaitza aurkitutakoan, aditz laguntzaile iragankor askotan falta den pluralgileaz jabetzean, etab.), ia oharpen hutsetara jo dugu gehienetan.

Eta, azkenik, oharpen hutsera jotzen dugu hemen ere Lazarragaren euskalkiaz -Arabakoa, antza, nahiz oraingo bizkaiera batzuetatik urrun ez dirudien- jabeazteko eta nobelagileak ezin gogokoago dituen sintaxi eskema mailegatu bukaezinez ("...dios Marteren mandataria ezpata bategaz salbaje haen arteti sartu zan utra hagitz emuten leustela bere ezpata zorrotzagaz, **zeintzuk** ihes egin eben Sirenari eta Silbiari itxirik, **zeinai** eskuak askaetan egotela Silbero eta Dorido, entzun eben haen alderu[nt]z kantaetaz etozela gizon batzu, **zeinak** ekarten mutiltxo bat silla baten jarririk utra ponpa handiaz, **zeinak** eukan tafetaezko benda bategaz begiak itxirik eta eskuetan arko bat saeta zorrotz bategaz armaturik, **zeintzuk** esaten eben utra kontzer[tu]...") gaztigatzeko.

Literaturaren jolasa hedatzeko eta gure literaturaren mirakulua eraikitzeke izan dadila!

Sirena, Silbero, Silbia eta Doristeo (Lazarragaren artzain-nobela)

[...] ² bero e... edan egu... bere ugaza[ba]... [-]tiak bere...

(2) Lazarragaren nobela ez da hemen hasten, orrialderen bat lehenago baizik. Horrezaz gainera, erantsiko diren puntuekin (...) adieraziko den bezala, Iritsi zaizkigun lehendabiziko lau orriak ere ez daude osorik, gotik behera urratuak baitaude. Horrek ia arras ulertezin bihurtzen ditu hango lerro gehienak.

Testuaren irakurketa errazteko, bertsio honetan ez da lerroen hasiera-amaierarik markatuko, ez eta eskuizkribuan dagozkien orrialdeak ere jarriko. Hori jakin nahi duenak goian aipatu helbide informatikora jotzea besterik ez dauka.

pentsadu eu... bada Silbe[ro]³ ... idoro⁴ bag[e]... [-]du eben kar[ta]... manera hon[etan] (...)⁵:

"Hainbat eta ... neure begi... daukadan ... karta honeta... uste dot dau... nau ezautu⁶... badau bere... horri mila bider ... kausea dan azkero⁷... ri remedio emun jagi[nik]⁸... hain handia dan azkero edo bes... [-]rik izango ezpada bere⁹, nahi beki... esku delikaduokaz karta honi erantz[un]... nahi ezpada ni zure mesede horr... hil nadin nagoan lekurea[n]... ..orren ...".

...ea Sirena ...on joean¹⁰ a ...nak iraku[-] ...n buruan ...urte-ten¹¹ ebela¹² ...eaz, zeina eku[sij]¹³ ...ena zan ez ...i ez legian¹⁴ ...ada mundu ...ik handiae ...ui eben kar[tea] ...urrik ezautu ...nik ezin esan ... atsegin hartu ...bio historieak ber[-] ...renak karteia idoro eben ...u eben manera hartan ...ori bere ezer esan baga Silbe[ro] ...la ebilirik utra¹⁵ jakiteko desean ... [S]irenak karteia hartu eben ala ez, sar[tu zidin] ...[i]txi¹⁶ eben lekura, nun idoro eben ...itxi eben maneran bertan, zegaz utra atsegin gutxi Silberok ...[e]ben bere bihotzean, ekusirik ai... bere gauzaetan zala, ai... Silberoren atsekabea han[di]a... buruko zentzuna bentzidu... hartu eben hain maneraz... [-]di batean iratzari ez zan... [amet]setan ebilela¹⁷ Sire-nagaz ... zidin¹⁸ utra espantadurik... bere pentsamentua beti ber...

(3) Protagonista nagusia, Sirenarekin batera.

(4) Aurkitu.

(5) Ondoren datorrena protagonisten arteko gutun bat bide da. Hor-tik, beraz, ahapaldia kakotxen artean jarri izana.

(6) Ezagutu.

(7) Ezkero, -ez gero.

(8) Testuan jakin zein *jagin*. Balio faktitiboko aditza, *eragin*, *araziren* mallakoa: *antzi(tu) jakinik*, etab.

(9) Ere.

(10) Zihoan.

(11) Irten, baina adiz laguntzaile iragankorra eskatzen du.

(12) *Eben*: zuen, zuten; batzuetan "zituen, zituzten" ere bai.

(13) Ikusi

(14) *Egin* aditza laguntzaile iragankor gisara: zezan, zitzan.

(15) Oso.

(16) Utzi.

(17) Zebilela.

(18) Zedin (baina ez sujuntiboa, aoristoa balzik); egungo lehenaldia-ren parekoa: zen.

[-]la eta probaetarren pe... [-]ganik apartadu al eia... biguela¹⁹ bat, zeina j[aiten]²⁰ hasi zan]... hau esaten ebel[a] (...)²¹:

o... /... /.../...

... / o... / egu... /zeur[e]...

Silbe[ro]... ..Sirenaren berbea zegaz utra ...hartu eben esan zituan ...k entzun ebelako bada e[-] ...an Silbero egoala²² Sirena ... [S]ilberoren aposentura utra ...az, zeinak han egoan²³ silla ... ber-ba²⁴ hoek esaten hasi... [zan manera honeta]n:

- Silbero, nagozu lehen ...rso horiek osteango da ...pel baten zeure eskuz ...degidazula, zegati ...batzu nik bere ...gozu erregutan.

...hau esanda ...[n] eben si[lla?] ...[e]an leku ...[n] baga ...ti Sirenak ...ten akorda... ..[b]at eskrebie[-] ...&

- ...di, eze ezin ...zuk²⁵ gura dozun ni enplea nadin zure serbi-zioan, suplikaetan natxazu²⁶ Sirena, ene laztana, nahi dakizula²⁷ gaur gabean zeure aposentuko bentanara joaten, eze han gura dot neu-ronek emun zuk agindu deustazun²⁸ sobrea... badurik, bada, karteia ...

... eben egoan lekurean²⁹ e... [-]teti geldixe iramo ...ren aposentura nun ... [-]rri eben Silberoren ... [-]rik han zioana ur[ten]... eta Silberori e... urtengo le... [Sil]bero bad... [eku]sirik Sir[ena]... nadu... Silber[o]... eta jarr... [-]rik Siren[a]... azpian... [-]netan eg... Sirena bent[ana-]... [legi?]antzat Silbe[rok]... hartu eben biguelea eta utra boz amorosoaz hasi zan manera honetan kantaeta[n]³⁰:

(19) Kitarraren antzeko musika tresna.

(20) Joten, jotzen.

(21) Bi ahapaldiko poema bat bide zetorren, launa bertsoleerrokoa.

(22) *Egoan*: zegoen.

(23) Zegoen.

(24) Hitz.

(25) "Zuk" izan daiteke.

(26) Suplikatzen natzaizu.

(27) "Nahi izan dezazula", nor-nori moldean.

(28) Didazun.

(29) Ablatiboko kasu-marka zaharra: "-rean" = "-tik"; kasu honetan, beraz, lekutik.

(30) Esamolde berdina erabiltzen baitu hurrengoetan.

Poeta gatxa³¹ idoro dozu,
Sirena, ene laztana,
[zu]re bentajaok esateko
...z nigana

...

... utra tristerik
...ik eztakarte
...[g]uztiok ifinirik³²

...[desd]txadu dei detizke
... etorririk
...ate
... egirik

.../.../.../...

...a
...zuzu
...txizkoak
...azu

Hala bada, nik orain, Jaungoikoa,
esango dot nola tratadu nauzun,
Sirena, utra birtute handizkoa
egizu³⁵ silentziaz eskutxadu.

Silberoren kantu dultzeaz ai... [-]tu Sirenak hartzaite[n]³⁴ eben
e... [apo]sentuan eukan³⁵ zanpona³⁶... utra dultzementa jaiten ha[si
zan]... hau esaten ebela:

Kañadaetan³⁷ hartza legez...
oi, nago kongoxadurik ...
ekusi inork ez nagja[n]³⁸
zugaz egiten ber[barik]

(31) Gaitza, txarra.

(32) Ipinirik.

(33) Ezazu.

(34) Hartzen.

(35) Zeukan.

(36) Musika tresna.

(37) Transhumantziarako erabiltzen ziren abelbideei eman ohi
z(tz)aien izena.

(38) *Egin* aditza laguntzaile iragankor gisara: nazan.

Silbero, zuk bad[akizu]
nola zure ag...
con tal que neu[re]...
ikutu ez dakid[]...

Halaze beti legez ...
zuk erraz dasakezu³⁹ ...
zure kontra zegati ...
ezer eginik ez na...

Sirenak bere kantu[a akabadurik] ...eben burua bere besoaen
ganean eta Sil[berok] bigueleari itxita⁴⁰ hartu eben berekin ... arpa
bat, eta hasi zan bere mina Sil[berok] deklaratan manera honetan:

...ik esango ditudan berbaok
...go dira gutxi batzu
...e hau dodan azkero
... ditut nik komentzadu

...engo ene penea
...ingo dozu dontzellea
...[o]n erexteagati
...[da]la kateea⁴¹

... bai izango
... atean
... an gero
... a

... banagizu
... tati
..., ene laztana,
... [d]ot zugaiti.

...[Sirena]k Silberoren berba ...bentanea eta Silberori ezer esan

(39) Sintetikoa: esan dezakezu.

(40) Utzi. Datiboarekin erabili ohi da testuan. "Sirenari itxi" eta ez
"Sirena itxi".

(41) Honela edo berreraiki liteke bi ahapaldion esanahia:

"Nik esango ditudan berbaok/ izango dira gutxi batzu;/ dolore hau dodan
azkero,/ oi, ez ditut nik komentzadu.

Oi, lehengo ene penea / jakingo dozu dontzellea/ zuri on erexteagati/ daroa-
dala kateea".

baga sartu zan barrura. Silberok ekusirik zala Sirena enojadu⁴², eskuetan eukan arpea iramo⁴³ eben hain furia handiaz eze utra pedazu asko egin zan eta hala tristeza handiaz Silbero joan zan bere aposentura, nun hasi zan llantu handi bat egiten, hain tristeza handiaz eze entzun egien⁴⁴ guztiai emun eioan⁴⁵ tristeza handia. Hainbat sentidu eben bada Silberok Sirenak hagaz⁴⁶ egin eben kaso gutxia, eze etorri zan heriotzako puntura.

Egun batean, bada, Silberoren ugazabak ikasirik nola egoan Silbero gaxorik, erregutu eutsan⁴⁷ bere emazteari eugi⁴⁸ legiala kontu handia Silberori behar ebena emaitiaz, zegaiti⁴⁹ zan utra keridua bere ugazabaren etxean. Eta etxeko andreak egin eben hala. Silbero, bada, hobato errejidu zegati zan?⁵⁰ Etxeko andreak agindu eutsan Silbiari, zeina zan Sirenaren konpanion egoana, eugi legiala utra kontu handia Silbero errejietiaz, zegaz utra atsegin handia hartu eben hala Silberok nola Silbiak, zegati utra on alkarri erexen⁵¹.

Egun batean, bada, Silbia joan zan Silbero bisitaetan beti kostunbretzat eukana legez, zeinagaz atsegin handia Silberok hartu eben, zegati hai[n] kontu handiaagaz egiten eben, hai[n]bat zan Silberoen deseoa Sirena ekusterren⁵², eze erregutu eutsan Silbiari legiala⁵³ hain mesede handia, eze legiala bere partez Sirenari erregutu bisitaetan etorri lekiola, zegati leukala esperantza handia Jaun zerukoagan eze, ha[r]en mesedea serbidu izaten lizala⁵⁴, Sirenak bisitadu balegi⁵⁵ bertati osatua zala.

(42) Alegia, "Sirena enojadu zala".

(43) *Iramon* aditza? Hemen "jaurtiki", "bota" esanahiarekin erabilia.

(44) *Egin* aditza laguntzaile iragankor gisara: entzun zuten, zioten.

Forma bera objektua plurala denetan ere.

(45) Eman zie(a)n.

(46) Harekin.

(47) Erregutu zion.

(48) Euki, eduki.

(49) Batzuetan *zegati*, bestetan *zegaiti*.

(50) Ez dago garbiegi nola ebaki eta puntuatu behar diren aurreko esaldiok.

(51) Eritzten zioten.

(52) Ikustearren.

(53) Aditz trinkoa: "egin liezialola" (nahiz eta egun "ziezialola" darabilgun). Hurrengo lerroan, berriz, laguntzaile gisara, "erregutu ziezialola" esanahiarekin.

Silbiak, bada, ezaturik Silbero[r]en borondatea, prometidu eutsan eze biharamunean sinfalta Sirena eroango leutsala⁵⁶ bere aposentura. Hainbat atsegin Silberok hartu eben Silbiak egin eutsan promeseaz, eze kasi eukan gatx guztia kendu jakan⁵⁷.

Biharamun goxean⁵⁸ joan zidin Silbia Sirena bisitatzen eta os-teango⁵⁹ beste berbaen artean egion⁶⁰ erregutu legiala konpa[i]nia Silbero egoan aposentura joaten eta Sirenak esan eutsan eze atsegin lebel⁶¹, zeintzuk alkarri eskuetarik eustela⁶² joan zirean Silbero[r]en kamarara, nun sar zitezenean⁶³ utra kortesmente Silberori berba egin eutsaen⁶⁴, zeinak [ah]al egian kortesia eta mesura guztiaz saludadu zituan eta eskatu⁶⁵ zidin arpa bat, zeina utra dultzero jaiten hasi zan, manera honetan kantaetan ebela:

Dontzellea, zegati zaoz⁶⁶
enegaz enojadurik,
zurekin ene aitasuna
horrela antzi⁶⁷ jakinik?

Dontzellatxo linda damea,
flordelisea zara zu;
ene penea⁶⁸ gero,
arren, berba bat esazu⁶⁹.

(54) Zela. Garibaik forma berdina dakar *Memorias* liburuan: "Fray Vicente esala, / Fedea cina liçala. Quiren decir [...] que Fray Vicente habia dicho ser juramento la fe" (Mitxelena: *Textos Arcaicos Vascos*, Madril, 1964, 171 or.).

(55) Bisita baleza, bisitatuko balu.

(56) Eramango ziola.

(57) Kendu zitzaion.

(58) Goizean.

(59) "Beste hitzen artean, besteak beste" adieraziko luke.

(60) Erregutu zion. Zortzi lerro gorago, *erregutu eutsan* ideia berdina adierazteko.

(61) Zuela (aurrerago "zituela" ere bai).

(62) Trinkoa: eusten ziotela/zietela. Dena den, hurrengo "eusten/eustela/leustela" guztiek "zien, ziela, zieten, zietela" adieraziko dute.

(63) Zitezen aoristoa + ean: "sartu zirenean" esanahiarekin.

(64) Zioten.

(65) *Eskatu* aditza iragangaitza da testu honetan (*eska zidin, eskatu da, eskatu jakan*), nahiz eta kasu batean *eskatu egionean* agertzen den.

(66) Zaude.

(67) Ahaztu.

Ekusirik Sirenak Silbero[r]en platikea, hartu eben Silberok eskuetan eukan arpea, zeina jaite[n] ebela erantzun egion manera honetan:

Jentil hombre penadua,
enegaiti kautibua,
zure llantu dolorosook
emaiten deustae⁷⁰ kontentua.

Bere kantaetea Sirenak akabadurik, urten eben hain laster Silberoko egoan lekurean, eze ez zan bastadu inor bere bihurteta. Silberok hainbat sentidu eben bada Sirenak esan eben berbaak, eze erori zidin jarririk egoan silla baterean; hain hagitz⁷¹, eze, Silbia itsatsi ez ballako⁷², ez zatean⁷³ mirakuru han hila. Baegoan, bada, Silberok hain akordu gutxigaz, eze Silbiak uste eben eze eskuartearen hilgo litzakala⁷⁴, harean-da⁷⁵ beregan bihurtu zeitean⁷⁶ artean. Eta destenpleak itxi egion orduan⁷⁷ hasi zan Silbia Silberoko kontsolaetan bada bere⁷⁸, ekusirik Silberok hain kruelmente bere Sirenak trataetan lebela, ez eben gura inork barbarik legion, salbo bakoitxi⁷⁹ egon baxe⁸⁰. Eta, hala, Silbiak urten eben harean⁸¹, nun Silberok geratu zidin bakoitxi eta hain kontsuelo gutxigaz nola inork pentsadu ezin leian⁸², zeinak harturik biguela bat hasi zan kantaetan manera honetan:

(68) Dakusasan.

(69) Esan ezazu.

(70) Ematen didate

(71) Bortizki.

(72) Bajako, balitzaio.

(73) Zatekeen.

(74) Aurreko beste kasu batzuetan bezala, lehenaldian /- ordez z-erabili ohi dugu gaur gun: zitzaiokeela.

(75) Harean eta, harik eta. Testuotan beti eskatzen du partizipioa + "artean" edo aditz jokatua + "-(i)no".

(76) Zitekeen (?).

(77) Itxi egionean (utzi zionean ->utzi zuenean, alegia). Testuan maiz agertzen da formula hau: laguntzailea + "orduan".

(78) Bada ere, badere. Balio kontzesiboa gehienbat.

(79) "Bakoitzi"; "bakarrik" esan nahi du.

(80) Balze, balzik.

(81) Handik.

(82) Zezakeen.

Esperantze hau galdu jat⁸³,
guztiz ez arren, parte bat;
neure laztanaen amorearren
egin gura dot negar bat

Ai, ene desdixadua,
gaitxez⁸⁴ rodeadua!
Kontentu uste neben orduan,
oi, jatort⁸⁵ deskontentua!

Ene biho[t]z penadua,
egun gaxki kuradua,
egun askotan beharko dozu
zeure aldean medikua.

Akabadurik bada Silberok bere kantaetea, urten eben bere kamararean eta igo eben bere ugazabaren aposentura, zeina idoro eben itxirik eta itaundurik etxekoai nun zan esan eutsaen⁸⁶ nola emazteagaz joan zidin jardina batera eta beregaz eroan eben Sirena eta Silbia bere dontzellaak.

Aditurik, bada, Silberok lehen esan dogun hau, joan zidin musiko batzuen etxera eta erregutu eusten legioela⁸⁷ lagun musika bat emaitera joaten, zeintzuk esan eutsaen baietz. Eta hala, behar eben instrumentu guztiak harturik, joan zirean. Eta heldurik Sirena eta Silbia eozen⁸⁸ lekuan⁸⁹, hasi zirean Silberogaz joazen⁹⁰ musikoak hain dultzamente jaiten euren i[n]strumentuak, eze Silberok[r]en ugazaba eta hagaz⁹¹ eozen guztiak zitezen⁹² espantadu eta ezin pentsadu eben no[r]gaiti edo nork emaiten[n] eben musikaoa. Eta

(83) Zait.

(84) Gaitzez.

(85) Datorkit. "Perutxoren kanta" izenekoan (1536) *jatorkedala* (etor dakidala) agertzen da (TAV, 102 or.).

(86) Zioten.

(87) Egin ziezaiotela

(88) Zeuden.

(89) *Helduaditzak* errejimen inesiboa du testu honetan.

(90) Zihoazen.

(91) Harekin.

(92) *Espantadu zitezen*: harritu ziren.

honetan eozela, ministrilak⁹³ ixildurik, hasi zirean lau musiko utra kontziertu handiaz manera honetan kantaetan:

Dontzellatxo, linda damea,
flordelisea zara zu;
nik zuri on dereitzut⁹⁴, baina
zuk ni erruki ez nauzu.
Amaren seme bakotxa naiz ta,
arren, ondo har narozu⁹⁵;
ama enea seme baga
zuk ifiniko al dozu?
Ama enea[r]en seme bageaz,
oi, zuk zer probetxu dozu?
Lau urtebete euren gabakin
zeure honetan naukazu;
ene laztana, ene lindea,
nahi dozuna egizu⁹⁶.
Ene laztana, ni hilagaz⁹⁷
zuk probetxurik badozu,
ori⁹⁸ gerriko dage⁹⁹ hau eta
bihotzeraino indazu¹⁰⁰.

Ene laztana, heriotzea
sentitzen ez dot bapere¹⁰¹,
atsegin eta deskantsu baxe
zu bazarade serbitzen.
Bada bere nahi ez neuke
mundu guztia gaitirren¹⁰².

(93) Oro har, haize instrumentuak jotzen zutenak.

(94) Oniritzi, maitatu. Forma trinkoen maiztasuna dela eta, testuan bereiztuta emango da aditza: *on eretxi*.

(95) Nazazu.

(96) Egin ezazu.

(97) Hiltzarekin.

(98) Har ezazu.

(99) Daga.

(100) Ermaidazu.

(101) Batere.

(102) "Garaitu arren"?

zuregaz ene sekretoa
deskubri lidin¹⁰³ bapere

Akabadurik bada Silberok bere musike hau, hainbat atsegin hartu eben jardinean eozenak eze ez ostean gehiago, espezialmente Silbiak, zeinak utra on erechan Silberori, zegati ezautu eben Silberoren kantaetea.

Akabadurik lehen esan dogun kantaete hau, Silbero eta bere lagunak joan zitezten ziudadera, nun Silberok emun eusten hain kolazio¹⁰⁴ handia beregaz eroan zituan musikoai eze ezin kontadu [ah]al leidi¹⁰⁵, gizonak gure arren bere.

Eta kolazioa akabadurik, despeditu¹⁰⁶ zituan musikoak eta, hai¹⁰⁷ itxita, joan zidin bere etxera, nun hasi zan bere erropaak kontuz maleta baten sartzaen, zegaiti esan eutsan ugazabak eze biharamunean joango zireala euren biajera, zeina zan Italiako ziudade batera, zeinari ereitzan¹⁰⁸ Artzileo.

Artzileoko ziudadean
Silbero hel zidinean
biziko zala uste ez eben,
oi, inor ordu batean.

Hainbat zan bada Silberoren
amore mina handia,
eze ez inor ekusterren
itxaiten¹⁰⁹ eben begiak.

Remediorik ezin lebela,
utra gaxorik ebilen¹¹⁰,
fortunearen etsai zala
ia hasi zan sentitzen.

(103) Ledin.

(104) Otordua, "lunch"-a.

(105) Ezin konta liteke.

(106) "Despeditu" dio testuak.

(107) Haiel.

(108) Zeritzon.

(109) Itsatsi? Itxi?

(110) Zebilen.

Silbia dama galant hori
pena handiaz bizi zan
Silberori on deretxana
akordatzen da askotan.

Doristeo, zaldun gazte bat,
ebilen penaz beterik,
zegaiti utra on eretxan
Silbia dontzelleari.

Sirena bere hainbeste dabil
besteok legez galdurik,
Doristeori on deretxala
Silbero antzi jakinik.

Kupido¹¹¹, nola dozu¹¹² horrein gaxki
zeure matraz doraduok gobernaetan?
Zegaiti¹¹³ lauoi bardin on eretxi
ez deraustezu¹¹⁴ euren amoreetan?

Dago Sirenagaiti Silbero hilik;
Sirenak Doristeori on eretxan;
Doristeok Silbiagati asko dauko minik;
Silbiak Silberori eutsan erreguetan.

Silberok, bada, ekusirik
bere desditxa handia,
negar egiten prometidu dau
bizi dan arte guztian.

Esperantzea galdu jakinik,
bizi zan atsegin bage;
joan gura dau lekureanik¹¹⁵
kanpu[r]a bizi izaaten.

(111) Erromatarren artean, maitasunaren jainkoa. Haren gezia jasotzen duena maitemindu egiten omen da.

(112) Objektu zuzena pluralean egon arren, aditz laguntzailea singularrean.

(113) "Zergatik"

(114) *Eradun-en forma zaharra. Egungo erabileran: diezu.

(115) Bertso lerroaren silaba kopurua lortzeko atzizki-erredundantzia.

Lehen esan dogun konkistan lau amadore hoek egonik, zan lastima handia nork bere bihotzean eukan tristezea ekusten¹¹⁶, espezialmente Silberok, zeinak ekusirik Sirenak besteri on eretxala¹¹⁷ akordadu eben joaten artzal¹¹⁸ baten figuran herriaetarik, ez hain bizi lazeradua iragaitarren.

Eta hala, egun baten bere ugazabari lizentzia eskatu jakan bere herrira joateko, zeinak utra damu handia hartu eben Silbero[r]en joateaz. Silberok bada bere ugazabari lizentzia eskatu egionean, joan zidin Silberagana¹¹⁹ zeinari, negarrez egoala, despedidu egion. Eta ia joateko egoan puntuan atera eben rabel bat bere mahukarean¹²⁰, zeina jaiten ebela hasi zan negar egiten honela:

Ordu onean gera zatez
dontzella linda erana¹²¹,
noxbait noxbait akorda zatez
zurea nola naxana¹²².

Etsaitasun parebagea
nigaz zegaiti daukazu?
Muger-harrizko¹²³ bihotza ba[i]no
gogorragoa zuk dozu.

Ni honerean¹²⁴ joateko
kausea, oita¹²⁵, zara zu;
Jaun zerukoak, ene laztana,
oi, degizula¹²⁶ parkatu!

Arren, Sirena, ene bihotza,

(116) Ikusten.

(117) Maitatzen zuela.

(118) Artzain.

(119) Sirenaz ari da.

(120) Mahukatik atera? Trapeska eraman ohi ziren horrelako musika tresnak bizkarrean.

(121) Erra[i]na? Herrera (dagozkion eginkizunak betetzen ez dituen, alegia)?

(122) Maizena.

(123) Sukarria.

(124) Hemendik.

(125) "Oi eta!": Oinazea eta mina adierazteko interjekzioa.

(126) Diezazula.

suplikaetan natxazu,
nik merezidu ez badot bere,
ez nagizula¹²⁷ antzitu.

Zeruko jaunaz, oita Sirena,
geratu bada zatez zu;
ni honerenean¹²⁸ banoa bere,
ene bihotza zuk dozu.

Neure begiok giaduko¹²⁹ dot
tristezea dan herrira,
atseginik sar ez dakidan,
oi, bihotzeta barrura.

Despedidurik, bada, Silbero bere Sirenaganik, hartu eben artzaiaen jazteko batzu eta hasi zan bere biajea artzaiaen ponienteko aldeetara. Eta bere bidea ekarrela¹³⁰, hel zidin ribera utra kaudaloso baten, zeinari eretxa¹³¹ Dueru, Gaztelako probintzian, nun zirean utra artzai aberatsak. Ekusirik, bada, Silberok egoala ultra urrun bere herrirean, akordadu¹³² eben artzai aberaspatekin jarten¹³³ artzaitzat. Eta hala egin eben, zegaiti biharamunean Askanio eretxan¹³⁴ gizon aberaspategaz jarri zan, nun bere ganadua goardaetan eben.

Silberoren partierea,
oi, aditurik Silbiak
damu handia, oi, eben hartu
bihotz berean menetan¹³⁵.

Silbero baga bizi izaate,
oi, ezin eben sufridu;
haren atzean joateko
da lizentzia eskatu¹³⁶.

- (127) Nazazula.
(128) Hemendik.
(129) Gidatu.
(130) Zekarrela.
(131) Deritzo.
(132) Hitzartu.
(133) Jartzen.
(134) Zeritzan.
(135) Benetan.

Silbiak bere ugazabari
honela esan deutso¹³⁷:
– “Romeria bat egiteko,
jauna, daukat nik gogo.

Honegati serbitzen bada,
arren, behar deust¹³⁸ parkatu,
zegaiti bihur nadinean¹³⁹
serbiduko zaut¹⁴⁰, jauna, zu”

Silbia despedidurik bere ugazabaganik, inork ezautu ez legiantzat¹⁴¹ kendu eben bere jaztekoak eta hartu eben artzai baten jaztekoak eta hasi zan bere biajea artzaiaen Silbero joeala¹⁴² ekian¹⁴³ lekuetati.

Egun baten, bada, bere bideti joeala, topadu zan artzai bigaz, zeinai Silbiak itaundu eusten nora lloazen¹⁴⁴, zeinak erantzun eusten manera honetan:

– Artzai polita, hik jakingo dok¹⁴⁵ eze guek¹⁴⁶ goazela Dueroko Riberara, zegaiti entzun dogu eze Silbero deretxan artzai batek dabela lutxa¹⁴⁷ handiak armatu komarkaetako artzai guztiakin eta dagoala denporea asignadu[ta]¹⁴⁸ egun seigarren eguneko, eta hala, ene

(136) Iragangaitza. Egun “eskatu du”.

(137) Dio.

(138) Dit.

(139) Egungo era arruntean: bihurtzen naizenean.

(140) Zaitut.

(141) *Legian* jartzea aski bazen ere, atzizkiak areagotu egiten du perpausaren helburuzko izaera.

(142) Zihoala. Ikus “Pedro Abendainokoaren eresia”: *Yzarragati gora elcian joeala* [...] (TAV, 79 or.).

(143) Zekien.

(144) Zihoazen (joango ziren?). Beherago, “zihoazen” adierazteko *joazen* erabiltzen da. Ez dago garbi, bada, *j* eta *ll* arteko hots bat -afrikatu sabaiaurreko ozena, akaso?-transkribatzeko zalantzak sortutako aldakiak ote ziren.

(145) Artzainek mutilizat hartu dute Silbia. Halere, nekez menderatzen bide dute aditz paradigma familiarra.

(146) Gubeharko luke.

(147) Dema.

(148) Eskuizkribuak “asiganadur” bide dio.

lagun hau eta ni goaz hara Silberoren jentilezak ekusterren, zegaiti utra manera handian dazauen¹⁴⁹ guztiok alabadu deuskue¹⁵⁰.

Silbiak Silberoren izena entzun egian¹⁵¹ orduan hasi zan negar egiten hain sentimentu handiaz, eze han eozen artzaiakgati¹⁵² izan ez balitz, ez zatean asko han hila. Ekusirik, bada, Silbiagaz eozen artzaiak egoala negarrez, zitezen espantadu eta ezin pentsadu eben zer [ah]al zaatean kausea, harean-da itaundu eioen¹⁵³ artean, zeinak manera honetan erantzun eusten:

– Zuek jakingo dozu¹⁵⁴, eze Silbero, zuek esan dozun artzai horregaz egon nax ni denpora handian eta hain da nik deutsadan¹⁵⁵ amorioa handia, eze neure herriari itxirik¹⁵⁶ nator ha[r]en eske. Eta hainbat atsegin hartu dot nun dagoan ikasiaz¹⁵⁷ eze, munduan direan rikeza guztiak emun baleustae¹⁵⁸ bere, ezin gehiago hartu neizuz¹⁵⁹.

– Bada –esan eben artzai batak– horrela dan azkero, goazen guztiok batera, eze guek [ah]al daigun lagundasunik onaena egingo deutsugu¹⁶⁰. Bada bere, erregutan gagozu¹⁶¹ esan deiguzula¹⁶² zure izena, zegaiti hobato alkar aditu daigun¹⁶³.

Honetan erantzun eben Silbiak:

– Zuek jakingo dozu, artzai nobleak, eze ni nazala Marsellako naturale eta ene izena da Klarian.

(149) Ezagutzen duten.

(150) Digate.

(151) Zuen.

(152) "Artzai aegati" bezala ere irakur liteke.

(153) Zioten.

(154) Aditz laguntzaile honek eta ondokoek erakusten duten bezala, XVI. mendearen amaieran oraindik ez zen pluralitasunaren pertzepzioa galdua egun singularreko bigarren pertsonatzat dugunari (*zu-ri*, alegia) dagoz-kion formetan.

(155) Diodan.

(156) Herria utzirik (testuan datiboarekin erabiltzen da *itxiaditza*).

(157) Jakiteaz.

(158) Balizkidate.

(159) Eskuizkribuan "ney sus". Ahalezko forma: nezake/nitzake(en), nieza(zki)zueke(en).

(160) Dizugu.

(161) Gagozkizu.

(162) Diezaguzula.

(163) Dezagun.

– Horrela dan azkero –esan eben artzai batak– ...^{164 165}

* * *

– ...[Sirena]ren konpanion dagoan dontzella batek, zeinari dere-txan Silbia, deretxula utra on eta hainbat graduan, ze zu hona etorri zareala ikasita etorri gura dau zure eske, zeinari zuk gura badeutsa-zu¹⁶⁶ on eretxi eta antzitu Sirena on ez derechun azkero¹⁶⁷, nik prometietan deutsut¹⁶⁸ eze laster osatu zatezkeala¹⁶⁹ daukazun ga[t]xaesun horretarik.

Silberok lehen esan dogun berbaok entzun egianeon, zidin han- diro enojadu eta egoan lekurean jagirik¹⁷⁰ joan zidin floresta bateti aurrera Klariani bakarrik itxita, zeinak bakarrik geratu zala ekusen¹⁷¹ orduan hasi zan, negarrez beterik bere begia zeukala, berba hoek esaten:

Klarian

Zorigatxean¹⁷², oi, neuretako amorea dot ezautu,
bardin gura naben azkero
honein kureldo tratadu.

Oi, amorezko errege jauna,
suplikaetan natxazu
degiozula¹⁷³, oi, Silberori
on derextala agindu.

Doristeok, bada, ekusirik bakarrik geratu zala bere Silbia baga, akordadu¹⁷⁴ eben ha[r]en eske joaten, zeinak partietako egoan egu- nean Sirenari berba hoek egin eutsan:

(164) Ondoko hiru orriak falta dira eskuizkribuan.

(165) Ondoko lerrootan Klarian (Silbia mozorratua, alegia) da Silbero- rekin mintzatzen agertzen dena. Honek ez du ezagutu.

(166) Nahl badiozu.

(167) Maitatzen ez zaituenez gero.

(168) Agintzen dizut.

(169) Zaitezkeela.

(170) Jaikirik.

(171) Ikusi zuen.

(172) Ikusi da dagoeneko *aitz* delakoa *atx* ebakitzen dela.

(173) Silberori maita nazala agindu diezaiozula.

(174) Erabaki.

– Ondo uste dot, Sirena, daukazula aditurik Silbiak bere joategaz niri bakarrik itxirik emun deustan¹⁷⁵ pena, zeina dan hain handia eze uste dot iraungo baleu denpora askotan li[t]zateala¹⁷⁶ parte niri heriotzea laster emaiteko. Eta kausa hoek guztiok nik ekusirik, dot akordadu ha[r]en eske joaten, zeina deustae esan dagoala Silbero dagoan lekuan. Honegati zuk ezer gura badozu herri haetaru[nt]z¹⁷⁷ esan egidazu¹⁷⁸, zegati utra borondate onez egin daidit¹⁷⁹.

Si[rena]:

– Ziertu baze[n]eki esan dozun berbaokaz egin deustazun atsekabea, sin[i]sketa[n] dot ez zebela¹⁸⁰ esango, bada bere, zeure borondate hori bestegan daukazuna legez, ezta mirakuru nigaz konturik euki eza. Bada bere, nik zuri deustudan amorioa hain firmea dan azkero, bazoaz munduen kabura bere, ezin itxi neidizu¹⁸¹.

Do[ristero]:

– Eztozu zeren¹⁸² berba horiek esan, Sirena, zegati dabe utra probetxu gitxi egiten hala zuretako nola enetako, zegati nigaz ezin inor lloake¹⁸³.

Si[rena]:

– Jai[n]koari nahi ez dakiola zu joan da¹⁸⁴ ni eben¹⁸⁵ gera nadila! Horregati, Doristeo, zoaz nora ta nundi gura dozun, eze nik itxiko ezteutsut¹⁸⁶.

Doristeok ekusirik zala inposible Sirena bereganik apartaetea,

(175) Didan.

(176) Litzatekeela.

(177) Haietarantz

(178) lezadazu.

(179) Egin dezaket. Etxeparek eta Oihenartek balio berberarekin darabilte *daidit*: "Eyagora nyc cer daydit[?]" (Etxepare, "Potaren galdatzia", 21. bertso-lerroa).

(180) Zenuela.

(181) Utzi zaitzaket.

(182) Zertan.

(183) Joan daiteke.

(184) Eta

(185) Hemen

(186) Ez zaitut utziko (nahiz eta, hitzez hitz eta batuan, "nik utziko ez dizut" izango litzatekeen).

hasi zan bere bidea artzaite[n], zeinak bere begiak negarretan eukala hasi zan berba hoek esaten:

Doristeo:

Oi, Sirena, zegaiti zatoz,
oi eta, ene atzean,
inposible, oi, dan azkero
nik zuri on erextea?

Sirena:

Doristeo, zegaiti zoaz
zeurori bada galdurik,
Silbiak, oita, dakusun gero
on derechana besteri?

Honela, bada, Doristeok eta Sirenak egin eben euren biajea, harean-da Silbero egoan lekuan hel zitezkeano¹⁸⁷, nun nor bere ugazaba banakin¹⁸⁸.

Egun baten, bada, Silbero eta Silbia, Doristeo ta Sirena, lauok batera nor bere ardiakin joazela¹⁸⁹, topadu zirean iturri fresko baten aldean, nun guztiak alkar ezaturik berba egin eutsaen, espezialmente Silberok Sirena ekusen orduan esan eben:

– Oi, Jaun zerukoa, ni nun ete nago? Lo ete¹⁹⁰ naz ala iratzarri-rik nago? Ezin sinistu¹⁹¹ dut neure Sirena[r]en aldean nagoala.

Berba hoek esanda joan zidin Sirenaren aurrera, nun belauriko¹⁹² jarri zan negarrez egoala berba hoek egite[n] lebela:

– Oi, Sirena, zeina[r]en begiok direan nortea¹⁹³ konpara-
duak, natxazu suplikaetan nahi dakizula ene peneau¹⁹⁴ honein han-
dia dan azkero remedioa emun jagite.

(187) Hel zitezkeeno, heldu ahal izan zuten arte.

(188) Aditzaren elipsia gorabehera, nor bere ugazaba banakin *joana zela* adierazten du esaldi honek.

(189) Zihoazela.

(190) Ote.

(191) "Sinistu" esaten du testuak.

(192) Belauniko.

(193) Artzainek gidaritzat hartu ohi zuten lpar-izarra zen "nortea".

(194) Pena hau.

Sirenak Silbero bere aurrean ekusen orduan utra enojadurik esan eutsan:

– Ken zatez ene begietarik, zegaiti nik ezteretxut on zuri bapere ba[i]no gehiago, zegaiti ene bihotza Doridogan dago.

Silberok hau entzun egian orduan bere buruari itxi eutsan lurre-ra jausten¹⁹⁵, zeinagana Silbia joan zidin lasterka, esaten eutsala:

– Jagi zatez, Silbero, horrean¹⁹⁶ eta itxi egiozu horrein kureldo¹⁹⁷ trataetan zaben¹⁹⁸ horri eta zatoz nigana.

Silberok erantzun eutsan:

– Silbia, ken hakit horrean¹⁹⁹, zegaiti nik ezin antzitu neidi²⁰⁰ hainbat²⁰¹ denporan on deretxadan gauzea.

Silbiak hau entzun egianean desmaiadurik erori zan, zeinagana joan zidin laster Dorido eta esan eutsan:

– Ai, Silbia, ene laztana, akorda zatez zein on deretxudan eta bai nola zabilten²⁰² enganadurik higu[n] zabenaren atzean; ene amorio hau antzitu jakinik suplikaetan natxazu degidazula²⁰³ remedioa emun, medezinea zu zarean gero.

Silbiak Doridoren berbaok aditurik esa[n] eutsan:

– Esan ze²⁰⁴ egidazu berba horiek, zegaiti gurago dot Silberori on deretxadala hil, eze ez ha²⁰⁵ antzitura bizi izan.

Doridok eukan esportzu guztia galdurik, etzin²⁰⁶ zan lurrera utra negar asko bere begietati ezarten²⁰⁷ ebela. Sirenak, bada, Dori[d]o

(195) Erortzen.

(196) Hortik.

(197) Krudelki, dollorki.

(198) Zaituen.

(199) Ken hadi hortik. *Edin: nor-nori. Bai Silbero Silbiari, bai Doristeok

Sirenari

(200) Mezake.

(201) "Anybat" agertzen da testuan.

(202) Zabilten

(203) Diezadazula.

(204) Ez. Ikus, esterako, *Refranes y Sentencias* (1596) 162. errefraua:

Gaytua çe eguic gaytu.

(205) Hura

(206) Etzan

(207) Isuri, bota.

lurrean negarrez ekusi egian orduan, joan zidin hagara²⁰⁸ konfiadurik respuesta hobia idoroko ebela hagan hark Silberori emun eutsan ba[i]no, eta esaten hasi jakan:

– Egun askotan, Dorido²⁰⁹, esan deusut zegaiti zabilten on ez deretxun horren atzean galdurik eta ez dozu sinistu izan nahi, harean-da zeure begiak ekusi dozun artean. Bada, honela dan azke-ro zeure buru hori, desenganadurik nago zu mesede eske honerean aurrera²¹⁰ on eretxi degidazula.

Doridok utra enojadurik erantzun eutsan:

– O, falsa traidorea, ken hakit neure begietarik ene desditxeonen²¹¹ kausea hi haxan azkero, zegai[ti] hik Silberori on eretxi baeutso²¹², Silbiak bere niri ezin ukatu eidan²¹³ neure remedioa. Bada, honeinbat gatx hire kausaz etorri dan azkero, zegaiti ezton²¹⁴ lotsarik berba horiek esaten gure aurrean?

Enojuzko berba hoek Silbiak²¹⁵ bere Doridoren ahorean²¹⁶ entzunik, zidin desmaiadurik lurrera jausi. Honela lauak eozela desmaiadurik, Silberok esan eben:

– Nagin Sirena remediadu!

Sir[ena]:

– Ni Doridogaiti gaxo nax!

Dorido:

– Silbiak katigaturik nauko!

(208) Harengana.

(209) Izen-saltsa honetan, "Silbero" zuen idatzia (eta ezabatua) egileak "Dorido"-ren aurretik.

(210) Hemendik aurrera

(211) Desditxa honen.

(212) Oniritzi bahio; maitatu bahu.

(213) Zida(kee)n.

(214) Ez dun

(215) Dagoeneko autorea zeharo nahasi da protagonisten izenekin.

Hemen, Silbiaren orde, Sirena jarri beharko zukeen.

(216) Ahotik

Silbia:

– Oita, Silberok ni hil nau!²¹⁷

Platika hoetan lauok eozela aditu eben hots handi bat kanputi etorrena²¹⁸, hain handia eze utra espantadurik eozen zer [ah]al zatean²¹⁹ ezin pentsadurik, harean-da Doridok burua goratu ta ekusi e[q]iano²²⁰ salbaje terrible bien figurea, zeintzuk zirudien sua ahoe-tati ezarten ebela eta euren eskuetan ekarten²²¹ arko bana fletxa zorrotzakaz armaturik. Eta Doridok ekusi egian orduan, esan eutsan Silberori:

– Jagi zatez horrean laster, Silbero, zegaiti eben²²² datoz salbaje handi bi ondo armaturik guri biziok edetera²²³.

Silberok entzun egian orduan Dorido[r]en berbaok, utra espantadurik jagi zidin eta hartu eben nork bere armak. Bada bere haek ondo begiratu orduko salbaje biak arrebatatu zituen Sirena ta Silbia, zeintzuk utra laster ta erroitu²²⁴ handiaz eroan zituen florestati behe-ra Silberok eta Doridok remediorik emun [ah]al baga, zeintzuk geratu zitezen espantu eta tristeza handiaz nork bere eben oneretxia²²⁵ galduagaiti eta ezin pentsadu eben nuen²²⁶ agintez edo nora salbaje haek eroan [ah]al eukeen²²⁷. Eta prometidun eben biak ez alkarri itxi jagiteko, harean-da Sirena ta Silbia idoro artean.

Honetan egun bat eta gau bat irago²²⁸ eben solamente negar baxe beste gauzarik egite[n] ez ebela, zeintzuk bigarren egunean, zerbait janda, loak hartu zituan arbole fresko batzuen azpian, nun

(217) Ondoren errepikatu egiten ditu protagonisten esaldiok:

Silbe[ro]: Nagin Sirena remediadu

Sire[na]: Ni Doridogaiti gaxo nax

Dori[do]: Silbiak katigaturik nauko

Silbia: Oita Silberok ni hil nau

(218) Kanpotik zetorrena.

(219) Zer izan zitekeen.

(220) "Eyano" irakurtzen da eskuizkribuan. "Ikusi zueino", alegia.

(221) Zekarten.

(222) Hemen.

(223) Kentzera.

(224) Arroitu, zarata.

(225) Nork bere zuen neska maitatua.

(226) Noren

(227) Nora eraman zezaketen (->zitzaketen).

(228) Igaro.

lorik gozoenagaz eozen orduan aditu eben kantaetaz etorrela hodeietati figura eder bat, zeina ekusiak²²⁹ emun eusten bildur handi bat eta uste eben ze Sirena eta Silbia eroan ebenak letozela²³⁰ haek bere eroatera.

Bada bere, hodeietati etorrenak berba egin eusten manera honetan:

– Ez bildurrik zeuren bihotzetan hartu, artzai amoraduak, zegaiti ni ez nator zuei gatxik egiten, daukazun gatx horrendako remedio emaiten baxe, eta hala atentzio handiagaz aditu egidazu esan gura deutsudan berbaok. Zuek jakingo dozu eze haraenegun²³¹ ekusi zeben²³² salbajeak direala Narbaez²³³ enkantadorearen mutilak, zeinak bere enkantamentu handiaz ikasi eben nola eben²³⁴ eozen zuen kausaz²³⁵ eta, zegaiti zuek eta haek atseginik hartu ez zegian²³⁶, eroan dau Konfusioko Etxera²³⁷, nun utra katea handiakaz daukan eta honerean hirugarren egunean aterako ditu buruak edetera zuek sokorridu ez badagizu²³⁸ nik esango deutsudan manera honetan. Zuek jakingo dozu eze ni bidaldu nabela²³⁹ batalla eta gerratako jai[n]koak, zeinari deretxan Marte, eta area²⁴⁰ emun deust ezpata hoek zuendako espilu honegaz batetan eta dio joan zatezela Konfusioko Etxera eta han hel zatezenez, zeuren ezpataok eskuetan

(229) Ikusi izanak.

(230) "Etorri" aditza: alegiazko puntuala (-), subordinazio markarekin.

Egun: zetozeala.

(231) Herenegun.

(232) Zen(it)u(zt)en.

(233) Kubako konkistatzaileetako bat, espainiar Inperioaren historia beltzenarekin lotua geratu zen Panfilo Narvaez-en irudia (c.1470-1528), bai diseinatu eta burutu nahi izan zituen gerra-estrategia frakasatuengatik, eta bai, B. Las Casasek kontatzen duenez, amerikar indijenen artean egin eta eginarazi zituen sarraskiengatik.

(234) Hemen

(235) Zuengatik.

(236) Ze(ne)zaten.

(237) Etxe honek kastitatearen babesa eta haragiaren atseginen aurkako zigorra alegorizatzen bide ditu.

(238) *Egin* laguntzaile iragankorraren sailekoa hau ere: Sokorritu ez badezazu(e), ez baditazu(e). Egungo erabileran: sokorritzen ez bad(it)uzu(e).

(239) Maueia.

(240) Are gehiago? Hark?

hartuta, belauriko jarri[ri]k²⁴¹ espilu honetara begira zaozela²⁴². Eta dakuskezun²⁴³ gauzagaiti ez begiok espilurean kendu, zegaiti bertati galduko zara; eta, barriz, kendu ez badagizu, ni joango nax behar dozun orduan lagunketara.

Silberok eta Doridok lehengo berbaok entzun egian orduan utra atsegin handia hartu eben euren bihotzetan, zeintzuk bertati nork bere espiluak eta ezpatak harturik joan zirean Konfusioko Etxera, nun heldu zirean hirugarren egunean, nox²⁴⁴ Sirenak eta Silbiak hil behar eben. Eta han heldurik, jarri zitezen begira kanpuru[nt]z, nun ekusi eben egoala Konfusioko Etxea hai[n] fuerte eta galanto labradurik nola ezin hainbeste munduan²⁴⁵ [ah]al zatean.

Honetan eozela, aditu eben etozela²⁴⁶ jente asko deadarrez, zeintzuen erditan etozen Sirena ta Silbia soka bategaz esku delikaduak loturik lepora, euren guardatzat sei salbaje aldeetati ekartela, zeinak pregonaetan eben Narbaezek haen kontra emun eben sententzia manera honetan:

Narbaez gizon sabioak,
oita, egun dau agindu
heriotzeaz dontzellaok,
oi, dagiela²⁴⁷ pagatu.

Honezkero ez ditezen
amoreagaz burladu:
hoentzat kastigua dan²⁴⁸ eta
besteoentzat exenplu.

- (241) Jarriz?
(242) Zaoze+(e)la: zaudetela.
(243) Aditz trinkoa: ikusiko d(it)uzu(e)n.
(244) Noiz.
(245) Errealitatetik at dago delako Etxe hori, mundu honetan ezin bailiteke hainbeste labra eta hain sendo eraiki.
(246) Zetozela.
(247) Dezala.
(248) -n atzizkiaren bidez subjuntibo bilakatutako indikatiboa: izan da-din.

Bioen kontra probantzea
klarua dago ziurtu,
Doridogaz Silberoren berbak²⁴⁹
zerren ez eben sinistu²⁵⁰

Halaze, bada, zuek batera
guztiok esan egizu²⁵¹
"amorekin kruel danak
honela begi²⁵² pagatu".

Entzun dozun pregoe hau
egjenean aditu
Doridok eta Silberok bere,
oi, ezin eben sufridu

Bela[u]riko²⁵³ jarri zirean,
laster zitezen armatu;
espiluak hartzaiterako,
oi, dira determinadu.

Zeruetako erregeari,
oi, dira enkomendadu,
suplikaetan li[t]zatela²⁵⁴
nahi lekiela lagundu²⁵⁵

Silbero ta Dorido honela eozela, baetozen Narbaezen jentea euren pregoea deklaratan ebela. Dontzella desdixaduak euren amoreak han ekusten²⁵⁶ orduan, ezin sufridu eben negar egin baga egoten, zeinak berba amorosoakaz esan eben berba hoek:

- (249) "Dorido eta Silberoren berbak", alegia.
(250) E z baitz(it)u(z)ten sinistu.
(251) Egizue, ezazue.
(252) Beza.
(253) Belauniko.
(254) Aditz laguntzaile irangaitza, hots, "supliketan zirela" (egungo "suplikatzen zutela" esanahiarekin).
(255) Lagundu nahi zekiela (ohiko "Jainkoari nahi dakiola" esaldiaren lldokoa, alegia).
(256) Trinkoa: ikusi z(it)u(z)ten.

– A, gizon doloraduak eta kruelak zeuen bizi hoendako, nola azartu²⁵⁷ zara²⁵⁸ zaozen lekura etorten, klaru dakusun azkero bizio-kaz²⁵⁹ ba[i]no gutxiagogaz pagatuko ez dozuna eta asi que asi²⁶⁰ hilgo zaituen azkero? Inolako maneraz defendidu [ah]al bagagizu²⁶¹ emun gura deuskuen tormentu honetarik, zuen kausaz hartzaite[n] dogun azkero, zuek bere libertaduko zara edo bestela guek eta zuek beharko dogu jente kruel hoen eskuetati heriotzea gustadu.

Berba hoek artzai biak entzun egienean, Jai[n]koak daki ze atsegin gutxi euren bihotzetan hartu eben, bada bere, Marteren mandatariak agindu eustena ez ausaiter[r]en, ezin ezer egin eben. Eta dontzellak ekustenean eueren²⁶² oneretxiak²⁶³ remediorik emaitte[n] ez eustela, ia eozen eueren esperantzea galdurik, bada bere dios Marteren mandataria ezpata bategaz salbaje haen arteti sartu zan utra hagitz emuten leustela²⁶⁴ bere ezpata zorrotzagaz, zeintzuk ihes egin eben Sirenari eta Silbiari itxirik, zeinai eskuak askaetan egotela²⁶⁵ Silbero eta Dorido, entzun eben haen alderu[nt]z kantae-taz etozela gizon batzu, zeinak ekarten mutiltxo bat silla baten jarririk utra ponpa²⁶⁶ handiaz, zeinak eukan tafetaezko benda bategaz begiak itxirik eta eskuetan arko bat saeta zorrotz bategaz armaturik, zeintzuk esaten eben utra kontzer[tu]²⁶⁷

(257) Ausartu.

(258) "Zarete" esango genuke egun. Ahapaldia ondo ulertuko bada, bigarren pertsonan agertzen diren aditz guztiei aplikatu beharko zaie "eguneratze" hori: dakusu -> dakusue, dozu -> dozue, bagagizu -> bagagizue, etab.

(259) Bizitzokin.

(260) Nola edo hala.

(261) Bagaitzazu(e). Egun: "defendatu ahal bagaitzuz(e)". Ikus gorago, "badagizu" delakoaz esandakoa.

(262) Euren, beraien.

(263) Mutil maitatuek.

(264) Ematen ziela.

(265) Zeudela.

(266) Hots.

(267) Hemen eta horrela amaitzen da artzain-nobela hau, bukaerakoak ziruditen lau orriak falta baititu.